

LEZOko

IV

Antzerki Testu Laburren Lehiaketa



HIKA
TEATROA



Lezoko Unibertsitateko Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

LEZOKO ANTZERKI TESTU LABURREN IV. LEHIAKETA

2023an, 2024an eta 2025an Lezoko Antzerki Testu Laburren Lehiaketak izandako arrakastaren ondoren, HIKA teatroak eta Lezoko udalak 4. edizioa jarri nahi dute martxan, "Lezoko Antzerki Testu Laburren IV. Lehiaketa", alegia.

Proiektu hau, HIKA Teatroatik Lezoko herrian garatzen ari den *LEZO ESZENA 2026* izeneko bitartekaritza, sentsibilizazio eta publiko berriak sortzeko programaren barne kokatuta dago eta besteak beste, antzerki egileak ikusaraztea, gazteak antzerkigintzara hurbiltzea eta talentu berriak idaztera animatzea du helburu.

LEHIAKETA HONEK BI FASE DITU:

Lehenengo fasea: Behin testuak jasotzeko epea amaitu ondoren, epaimahai aditu batek testu guztien artean LAU aukeratuko ditu bigarren fasera igarotzeko. Horietatik bat gutxienez 35 urte baino gutxiago duen dramaturgo batena izatea balioetsiko da. Hizkuntza aldetik, **EUSKARAZ idatzitako testuak BAKARRIK onartuko dira.**

Bigarren fasea: Lau pieza finalistak, bigarren fase baten lehiatuko dira, IRAKURKETA DRAMATIZATU moduan, **urriaren 3an** ospatuko den kale jaialdian. Fase honetako testu irabazlea, publikoak berak erabakiko du zuzeneko bozkarekin.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Eremu geografikoa: Deialdi honetara euskararen eremu geografikoko dramaturgo, idazle edo idaztea gustukoa duen edozein hiritar aurkeztu liteke. Euskal eremu geografikoaz ari garenean Euskal Erkidegoaz, Nafarroako Foru komunitateaz eta Euskal Hirigune Elkargoaz ari gara.

Epea: Testuak jasotzeko epea gaur, **apirilaren 23an hasiko da eta irailaren 11n eguerdiko 14.00etan bukatu**. Ordu eta egun horretatik aurrera ez da testu gehiago jasoko. Testuak PDF formatuan email honetara bidali beharko dira: "kultura@lezo.eus". Testuarekin batera 8-10 lerroko sinopsia bidali beharko da eta baita pertsonaia bakoitzari buruzko hiru lerroko azalpena. Horrez gain, idazlearen datuak aparte bidaltzea eskatuko da ondoko informazioarekin: nortasun agiriaren fotokopia, karnet-erako argazki bat, emaila eta telefono zenbaki bat.

Luzera: 15 minutuko antzerki testu laburrak izango dira.

Estiloa: Antzezlanak komedia / absurdoa / tragikomedia estiloen barne kokatuko dira.

Pertsonaiak: Bi guztira.

Gaia: Gaia librea da. Pieza guztietan, ordea, pertsonaia protagonista GAZTE bat izango da. Horrez gain, LEZOko herriak ere, modu librean, traman agertu beharko du.

Hizkera: Ez da hizkera matxistarik onartuko, ezta askatasunaren edo giza eskubideen kontrakorik.

Ebazpena: Lau dramaturgo **finalisten izenak irailaren 18an argitaratuko dira**.

Lehiaketa: Lau testu finalisten **irakurketa dramatizatua urriaren 3an** egingo da Lezon, kalean ospatuko den festa handian. Testu irabazlea publikoak berak hautatuko du.

Saria: Sari bakarra egongo da, **1000 eurokoa (zerga guztiak barne)**. Eta erabakia publikoak hartuko du jakin gabe testu bakoitza zein dramaturgori dagokion eta zein zuzendarik zuzendu duen. Testu irabazlea zein den jakin ostean, orduan bakarrik emango da informazio guztia.

Testuak ikusgai: Jaialdiaren ostean, irakurketan parte hartutako lau testuak ikusgai izango dira Lezoko Udalaren eta HIKA Teatroaren web orrialdetan, astero bat, nahi duen orok irakurri ahal izateko.

Testuen edizioa: Lezoko udalak eta Hika Teatroak lau testu finalisten liburuxka ilustratua argitaratzeko aukera izango dute.

Testuen jabetza: Lan sarituen jabetza egilearena izango da, baina HIKA Teatroak eta Lezoko udalak, urtebeteren barruan, saritutako testuaren eta gainontzeko hiru testu finalisten argitalpena egiteko eskubidea izango du, edizio ilustratu bezala eta bi eragileen web orrialdetan.

Testu orijinalak: Aurkeztutako lanek ehuneko ehunean orijinalak izan beharko dute, eta ezin dira urriaren 3a baino lehen (irakurketa dramatizatuaren partidaren eguna) inon osorik edo zati batean argitaratuak edo antzeztuak izan. Halaber, ezingo dira inola ere eskuragarri egon epaia eman arte.

Ez da onartuko inolako itzulpenik, egokitzapenik edo berridazketarik, izan eleberritik, zinematik, telebistatik, irratitik edo antzerkitik eratorriak, ezta sarira aurkezten diren egileek berek sortutako lanen kasuan ere.

Era berean, lanek ezingo dute beste inolako lehiaketatan saririk jaso hautaketa-prozesuan zehar, ezta epaia eman arte ere.

Testu kopurua: Egile bakoitzak nahi adina testu aurkeztu ditzake. Finalera ez dira iritsiko egile berberaren testu bat baino gehiago.

Oinarrien onarpena: Lehiaketara aurkezteak baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

